

Jakes Bortainu

AEK-KOKIDEA

Udazken beroa

A

zaroaren 6ko manifestaldien arrakasta mugatuaren ondotik, erretreten defentsarako mugimenduen azkena bizitzen ari garelako sentsazioa indartuz doa Frantzia-

ko Estatuan. Ez da ikusten beraz, auzitegi konstituzionalak bere iritzia eman ondoren, lege-aldarrikapena zerk trabatzen ahal duen. Sindikatuak azaroaren 23rako beste mobilizazio eguna iragarri badute ere, ez dira bat etorri orain arte bezala eta konsigna argi bat eman orde, lekuan lekuko egiturei utzi diete mobilizazioaren forma definitzeko ardura. Pasa den asteburuan, urrian zehar lurralde askotan sorturiko grebalarrien biltzar nagusietako delegatuen koordinaketa bildu da mobilizazioaren jarraipena sustatzeko, baina sindikatu nagusien greba deialdirik gabe, nekez eskaintzen ahal dio mugimenduari epe motzeko perspektiba. Sarkozyren erabateko garaipena ote?

Alta, 2010eko urriko erretreten aldeko mobilizazioa mugarri bezala geldituko da sozial borroken historian Frantziako Estatuan. Alabaina, izan dituen hamaika adierazpide, elementu berritzaileak eta iraupena guttitan ikusiak izan dira azken hamarkadetan. Nazioartean izan duen oihartzunak ere, ezohiko zerbait gertatu dela erakusten du. European barna bereziki, duela



DANI BLANCO



Goizegi da erantzun borobilak emateko. Pesimista bakar batzuek pentsatuko dute jendartean etsipena nagusituko dela eta borrokarako gogoia luzerako itzaliko. Alta, alderantzizkoa gerta daiteke



zenbait hilabete Greziako langileen oldartzearekin gertatu bezala, jende andanak batek erretreten aldeko mobilizazioa “pribilegio” batzuen defentsa baino, denek pairatzen dugun kapitalismo neoliberalari erresistentzia borroka gisa argi eta garbi ikusi du.

Mugimenduak ez badu bigarren hatsik lortzen zer geldituko da geroari begira?

Goizegi da erantzun borobilak emateko. Pesimista bakar batzuek pentsatuko dute jendartean etsipena nagusituko dela eta borrokarako gogoia luzerako itzaliko. Alta, alderantzizkoa gerta daiteke. Borroka politikoa galdurik ere (botereak ez baitu gibelerat egin) borroka ideologikoa irabazia izan da, jendarteko sektore zabal batzuek, lege proiektua injustua zela konturatzeaz gain, argi ikusi baitute ekoizturiko aberastasunen banaketa zela arazoaren muina, hedabideen propaganda hutsaren kontra eta gobernuaren gezurren artean. Horrek aztarnak utziko ditu. Halaber, erakutsitako indarra eta irudimena, bizi izandako elkartasun esperientziak eta antolaketa moldeak egiazko altxorak dira geroari begira. Gertatu dena aztertu eta teorizatzeke tenorea etorriko da (batzuek “bakezko gerrila sozial iraunkorra” kontzeptua asmatu dute jada) ondoko guduak laguntzeko. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Egiteko aroan bizi gara non-bait berrogei urte inguruko seme-alaben gurasoak. Eta ataka honetaraino etorriak, ni neu ere neurea egin beharrean nago. Nik ere neurek norbait eramaten zutenean, baldintzapeko arrestoan zeukatela esaten nuen, besteek bahiketa hitza erbiltzen zutenean. *Mister Ixak* eskema bera erabili du Segundo Mareyrena adierazteko. Bahiketa arrestatze. Ez nau harritu, orain arte gezurretan aritu izanak harritzen ez ninduen bezalaxe. Hizkuntza berean haziak izan gara. Niri horrek bizkarrekoak hartu behar izatea ekarri zidan, *Ixaren* makilek emandakoak. Hizkuntza

Aitortzak

berean, batzuek eman eta besteek hartu. Eta orain ere, bizkarra babestua. Ez du *Ixak* inork arrestatu, torturatu eta kartzeleratuko duen beldurrik, makilen jabetza berea du. Gary Cooper baten errebolberraren koskak ezkutuan, erakusteko imintziotan aritu zaigu publikoki, tertulia-kide lerdetsuentzat ari izan balitz bezala. Etxe baten eta lur mutur baten ametsa omen du, sei-zortzi hektarea aski. Eta nago, beltzek idatziko dioten bere memorien liburu saltzen hasia dela, best-sellerra izango duen kontakizunari hastapena eman diola errebolberrik gabeko kartutxera agerian. Hizkuntza aldatu gabea noski, horretan du bere balioa. ■